


## Erdialdeko Asian jokatzeko da XXI.eko partida izugarria

Errusiarrak, txinatarrak eta Mendebaldekoak etengabe daukate ate joka Erdialdeko Asiako errepubliketako buruzagiek. Petrolioa daukate, gasa ere bai, eta gainera kokagune estrategikoan bizi dira. Geopolitikak indartu adina arriskutan jartzen ditu Asiako errepublikok.



“GREAT GAME” EUSKARAZ “Partida Izugarria” ipini dugu, nahiz eta gaztelaniaz “El Gran Juego” eta frantsesez “Le Grand Jeu” eman dituzten. Ingeleseko Wikipediari galdetuz gero “Great Game”, bertan aurkituko duzu 1878ko *cartoon* polit bat: Afganistango emir edo errege alde batean hartz errusiarrak eta bestean lehoi britainiarrak dituela, biak inguratuta.

Régis Genté kazetariak *Le Monde Diplomatique* hilabetekarian *Les ex-républiques soviétiques dans la géopolitique mondiale. Du Caucase à l'Asie centrale, “grand jeu” autour du pétrole et du gaz* plazaratu du. Hasi Georgiatik eta Pakistan arteko gatazka eta arazoak argitzeko geopolitikak eskaintzen duen gakoa esplikatzen du Genték. Bere azterketa kontuan hartuta, hobeki ulertzen dira Asia erdialdeko katramilak, Afganistango hondamendia barne.

Wikipediara itzuliz gero, ikus daiteke Partida Izugarria hau aspalditik datorrela: Errusiaren eta Inperio Britainiarren arteko lehia Asia erdialdea kontrolatzeko. Partida Izugarria, Persiak eta Errusiak 1813an sinatutako itunetik hasi eta Londresek eta San Petersburgetik 1907an konbentzioa hitzartu arte luzatu zen lehen fasean, eta handik sortu zen oraindik buruhausteak ematen dituen Afganistan estatua, bi blokeen arteko mugan. Bigarren fasea luzatu zen boltxebikeek aginte hartu zutenetik 1991a arte.

“Orain gori dago *Great Game* berria –idatzi du Régis Genték– eta oraingoan petrolioa eta gasa daude arazoaren muinean. Baina hidrokarburu eskeak ez du besterik gabe esplikatzen, potentzia handiek Asia erdialdeko eta Kaukasoko errepublika sobietar ohiak berenganatzeko daukaten gudua. (...) Oleoduktoak zera dira: eskualde horretako zortzi estatu berri independenteak beren magal geostrategikoan lotzeko erabiltzen dituzten soka luzeak”.

*Great Game* zaharraren “Indiak” zeuden jokoan, koroa britainiarren harribitxia. XXI. mende hasiera honetan Erdialdeko Asia kolonizatu nahi dute, batzuek eta besteek, arerioa neutralizatzeko, kazetariari Kirgizistango diplomatiko batek aitortu dionez. “Gasa eta petrolioa bada bera bezelako helburu, baina baita influentziak lortzeko tresna ere”.

Sobiet Batasuna erori berritan, hartatik sortutako estatu independenteez petrolioan aurkitu zuten aurrekontua handitu eta Moskurekiko burujabatasuna sendotzeko modua. 1980ko hamarkadan horrela sartu zuten muturra Mendebaldeko korporazioek Kaspio itsasoa, petrolioa ustiatzeko.

Hurrengo hamarkadatik hasi zen Mosku erreakzionatzen. Hona adibide argigarria: 1993an estatu kolpe batek kendu zuen agintetik Azerbaijanen Abulfaz Eltxibei lehendakaria,

errusiarrek areriotzat ikusia, eta haren ondoren aginte hartu zuen Aliev-ek –KGBko jeneral izana bera– laster eskaini zien akordio bat errusiarrei petrolio aferetan.

Baina Amerikako Estatu Batuek urte horietan apustu gogorak egin dituzte parajeotan. Garestiena, Baku-Tbilisi-Ceyhan (BTC) oliobidea. Nola edo hala hori eraiki nahian, Kaspio aldeko petrolio aurreikuspenak exajeratu egin zituzten amerikarrek. Orduan aipatu zen 243.000 milioi upel ote zegoen han, eta gaur erreserbak 50.000 milioitan kalkulatzen dira. Baina errusiarrei hesia jartzeko BTC derrigorrezkoa zuen Mendebaldeak.

Delako terrorismoaren kontrako borroka ere erabili dute AEBek: base militarrek daukate Kirgizistanen eta Uzbekistanen. Errusiaren baratzean.

### Petrolio eta gasaz gain

AEBek esku hartu zuten Georgian (2003), Ukrainan (2004) eta Kirgizistanen (2005) gertatutako aginte aldatketan... eta orduan hasi ziren inguru honetako beste agintari autokrata batzuk berriro Moskura edo eta Pekin aldera begira. Oinpean daukaten petrolioak eta gasak lagunak aukeratzeko bidea ematen dielakoan.

Urte horietan hasi da Errusia, Putinen bultzadaz, Erdialdeko Asiako errepublikekin harremanak berriro estutu nahian. Turkmenistan da



Mapa honekin argitzen du *Le Monde Diplomatique*k hidrokarburoen garraio sarea Erdialdeko Asian. Urdin argiz daude Europar Batasunako eta Mendebaldekoen aldeko herrialdeak; horitaz, Errusiarekin alineatuta daudenak. Bien muga aldean mirri-marratuta daudenak dira bi potentzietako batek sailhestu nahiko litzukeenak. Marra berdeek adierazten dituzte txinatarrak eraikitzen ari diren gas edo petrolio hodiak, marroiek errusiarrenak, urdin ilunek AEBenak, urdin argiek Europarrenak eta laranja kolorezkoek irandarrena. Afganistan eta Irak kolore bereziz daude, horietan estatuek ez dutelako segurtasuna bermatzen. Ubelez margotu dira gas edo petrolio asko daukaten gunek.

egoera berriaren adibide nabarmena. 2003an presio gogorra egin zion Saparmurad Niazov lehendakariari, gasa errusiarrei saltzeko 25 urteko kontratua sinatu zezan. Baina Niazov hildakoan, Axkhabad presidente berriak kontratua berriarazi zien errusiarrei, epea laburtu eta prezioa handituz. Nola? Bitarte horretan Hu Jintao txinatarrarekin negoziatuz beste kontratu bat, gasa Txinara ere bidaltzeko.

Errusia gasetan munduko lehen ekoizlea da eta petroliotik bigarrena. Baina gainera, bere kokapena erabili nahi du Europarekin eta AEBekin indar handiagoz negoziatzeko. Hauek berriz, eginahalak egiten dituzte alderantzizko norabidean. Aipatu dugun Baku-Tbilisi-Ceyhan

oliobideak min egin die errusiarrei. Baina gainera AEB eta Europak beste bi proiektu handi daukate esku artean Erdialdeko Asiako petrolio eta gasa errazago etxeratzeko.

Bata da *Kazakhstan Caspian Transportation System*. Honen bidez, 2010. urtetik aurrera egunean 1,2-1,5 milioi upel petrolio ekarri nahi dituzte Mendebaldera, Kaspio itsasoa ontziz zeharkatuta eta gainerakoa BTC oliobidetik. Bestea oraindik asmoa besterik ez da: Kazakhstan eta Turkmenistango gasa Kaspioan barrena ekartzeko, ontziz hau ere, Errusiak eta Iranek ez dute-eta itsaso hori hodiz zeharkatzerik ametitzen.

Erdialdeko Asiako partida handi honek baditu jokalarri gehiago. Afganistanek muga daukan egitekoa eza-

guna da. Aldiz, Iran atera da orain artean jokaldi guztietan kaltetuena. Inbertsiorik handienak egin dituzten mendebaldarrak ondo saiatu dira petrolio hodi bakar bat ere ez pasatzen Irandik barrena. Amerikarrek oraindik indarrean dauzkate Iranen eta Libiaren kontrako zigorrak, eta beste inor ez da ausartzen Washingtonen araua hausten, Erdialdeko Asiako hidrokarburoak itsasoratzeko bide laburren Iran zeharkatzea den arren. Erregaiak erraz eskuratzeko aukerak horrela galdu ditu Indiak, adibidez. India ere geopolitikaren kaltetu du.

Txina da amerikarrei errespeturik ez izateko gai den bakarra. Txina da Irango petrolio eta gas negozioaren salbamendu txalupa ere. Baina badu Erdialdeko Asian jokatzeko desira ere. Hiru helbururekin. Bata, segurtasuna, batik bat Xinjiang probintzia turkiera-hiztunean. Bigarrena, auzoko bizilagunekiko elkarlana, beste inork hartu ez dezan indar handiegia. Azkenik, energia eskuratzea.

Ororen buru, Erdialdeko Asiako errepubliketako agintariek badakite AEB-Europa, Errusia eta Txina etengabe dauzkatela ate joka, eta posizio hori baliatzen dute bai beren produktuen prezioak garestitzeko eta bai beren boterea sendotzeko. Aliantzen aldaketa edo horretara iristeko mehatxua ez dira batere tresna txarrak. Ordainetan, giza eskubideen esanahia potentzia handientzako *chewing-guma* bezain elastikoa da errepublikotara iritsitakoan. Hemengo lurpean datzan gasa bezain iheskorra. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



### Beti hurbilago.

Zerbitzu integrala,  
pertsionalizatua,  
hurbila eta  
etengabea.  
Horixe  
da gure  
konpromisua.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL: 943 420 624